

# KANALAK

Gaur egun, enpresa batek bere produktuak saltzeko hainbat bide erabiltzen ditu, eta kanalak ondo antolatzea ezinbestekoa da bezeroengana iristeko eta haien beharrak asetzeko. Horregatik, atal honen bitartez gure produktua aurrera ateratzeko erabiliko ditugun kanalak azalduko dizkizuegu, horiek zeharkakoak eta zuzenekoak izango dira.

Produktuen salmenta Internet bidez oso eroso eta eraginkorra da. Bezeroek nahi duten produktua aukeratu, klik bakar batekin erosi, eta etxean jaso dezakete. Horren ondorioz, gure salmentaren zati handiena online bidez izango da. Bertan egindako erosketak bezeroek modu seguruan eta azkar jaso dezaten, SEUR bezalako garraio enpresekin lan egingo dugu. SEUR-rek makinak garraiatzeko aukera eskainiko digu.



Webgunea gure enpresaren aurkezpen gune nagusia da. Informazio guztia bertan aurki daiteke: produktuen ezaugarriak, prezioak eta eskaintza bereziak. Webgune erraz eta erabilgarria izatea garrantzitsua da. Horrez gain, webgunearen bitartez bezeroek gurekin komunikatzeko aukera izango dute eta produktuaren jarraipena ikusi ahal izango dute.



Gure produktua ezagutarazteko telebistako iragarkiak erabiliko ditugu. Publizitate honek jende askorengana iristeko aukera eman eta gure marka ezagunago bihurtzen lagunduko digu. Gainera, telebistako iragarkiek ikus-entzunezko baliabideen indarra aprobetxatzen dute, mezua eraginkorrago transmititzeko eta publikoaren arreta erakartzeko, horrela gure produktuen kalitatea eta balioa azpimarratuz

Makina bi modutan eros daiteke: online bidez edo webgunearen bitartez, eta denda fisikoetan adibidez, Fnac, MediaMark eta Amazon. Aukera bikoitz honek, bezero guztien beharrak eta erosotasuna asetzeko aukera ematen du, nahi duenak modu digitalean erosi edo produktua bertatik bertara eskuratu dezaten.

Bezeroarentzako arreta-zerbitzua lokalean bertan eskainiko genuke baina lokala herri txiki batean dagoenez denok ez dute aukera hori izango. Horregatik, telefonoz, emailaz edo webgunearen bitartez ere eskainiko dugu zerbitzu hori. Gure helburua bezero bakoitzari konponbide azkar eta eraginkor bat ematea baita.